

TXINTXUA FILMS eta HIRUKI FILMAK (Erburu Irigoyen Garazi y Lameiro Gareyoa Ione Atenea y Marina) aurkezten dute

ARANTZA SANTESTEBAN MIRARI ECHAVARRI MERCÉ SALOM MANON PRALINÉ MARYANN PEONY
Zuzendari laguntzailea. IRATI GOROSTIDI Argazki zuzendaria. MADDI BARBER Muntaiia. MARIONA SOLÉ Zuzeneko soinua. ALAZNE AMEZTOY
Soinu diseinua eta edizioa. XANTI SALVADOR Arte zuzendaria. IKER ÁLVAREZ Kolorea. LARA VILANOVA
Ekoizleak. MARIAN FERNANDEZ PASCAL eta. MARINA LAMEIRO Gidoilaria eta zuzendaria. ARANTZA SANTESTEBAN

ARANTZA SANTESTEBANen film bat

918 GAU

EXPERIMENTALA, 65 MIN, J.B. EUSKERA

918 GAU

P.2


1	SINOPSIA
2	FITXA ARTISTIKOA, TEKNIKOA ETA DATU TEKNIKOAK
3	ZUZENDARIAREN OHARRAK ETA GALDERA-ERANTZUNAK
4	ZUZENDARI ETA GIDOILARIAREN BIOFILMOGRAFIA
5	ARGAZKI ZUZENDARIAREN BIOFILMOGRAFIA
6	MUNTATZAILEAREN BIOFILMOGRAFIA
7	EKOIZLEEN BIOFILMOGRAFIA
8	EKOIZPENA ETA FILMAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA
9	EKOIZTETXEAK
10	HARREMANETARAKO KONTAKTUA

918 GAU

P. 3



918 GAU



P.4

2007ko urriaren 4an, Arantza, filmaren zuzendaria, atxilotu eta espetxeratu zuten. Zenbait oroitzapen gordetzen ditu egun haie-tatik: patioko joan-etorri amaigabeak, igeriketa-lehiaketak, Rasharen bizipen latzak kartzelan... 918 gau giltzapetuta eman eta gero, Arantza aske geratu zen. Handik aurrera, grabagailu batean jaso zituen bere oroitzapenak eta zalantzak, eta filmean zehar azalduko zaizkigu, memoria zatikatu baten eran.

918 GAU

P. 5



ARANTZA SANTESTEBAN
 MIRARI ECHAVARRI
 MERCÉ SALOM
 MANON PRALINÉ
 MARYANN PEONY

918 GAU

FITXA TEKNIKOAK

Zuzendaria eta gidoilaria:	ARANTZA SANTESTEBAN
Zuzendari laguntzailea:	IRATI GOROSTIDI
ekoizpena:	TXINTXUA FILMS eta HIRUKI FILMAK
ekoizleak:	MARIAN FERNANDEZ PASCAL eta MARINA LAMEIRO
Argazki zuzendaria:	MADDI BARBER
Muntaia:	MARIONA SOLÉ
Soinua:	ALAZNE AMEZTOY
Zuzendari artistikoa:	IKER ÁLVAREZ

P.6

DATU TEKNIKOAK

Luzemetraia / Experimentalak / 65" / Kolorea / 2K - 1'78:1 / J.B. Euskera.

918 GAU

P.7



918 GAU

Kartzelan egon nintzenean jaso nituen gutunak kartoizko kaxa batean gordeta neuzkan, nire gurasoen etxean. Bisitan joaten nintzaienean, kaxaren aurretik pasatzen nintzen. Begiratzen nion, baina ez nuen ireki nahi. Egun batean, kartzelatik atera eta 6 urtera, eseri, eta artxibo hura osatzen zuten gutunak eta argazkiak ateratzen hasi nintzen. Aurrez aurre neuzkan milaka kaligrafia, argazki eta sostenguzko mezu. Orduan ohartu nintzen zein balio handia zeukan artxibo hark, ez bakarrik emozionalki, baizik eta baita bisualki ere.

Ordurako baziren urte batzuk zinema-ikasketak hasiak nituela, eta une hartan erabaki nuen artxibo harekin film bat eginen nuela. Gutunak berri-rakurri nituelarik, emozio kontraesankorrak izan nituen. Batetik, izugarrizko esker ona sentitu nuen sostenguzko mezu haien aurrean. Hunkitu nintzen pentsatu nuelarik zer maitasun-keinu zeuden haien atzean: ikaragarri garrantzitsuak izan zitzaizkidan giltzapean egon nintzen urte haietan. Hala eta guztiz ere, bazen zerbait oso arraro sentiarazten ninduen. Gutunak irakurri nituenerako, urte batzuk neramatzan kalean, eta sentitu nuen urte haietan guztietan asko aldatu nintzela. Nire iraganeko keinu batzuek deus gutxi esaten zuten gaur egun naizenaz.

P.8

Kartzelako bizipena konplexua da. Zalantzarik gabe, egoera gogorra da sufritzen duenarentzat; desberdintasuna da harremanak egunerokotasunaren zeharkatzen dituen marka. Instituzioaren eta presoaren arteko botere-harremanak, tokiko eta atzerriko presoaren artekoak, zurien eta beltzen artekoak, preso politikoen eta preso komunaren artekoak. Ez dago kartzelari buruzko kontakizun bakar bat; kontua da estereotipoek ez dutela uzten bizi garen munduetan egoteko beste modu batzuk azaleratzen. Ikasi dut pertsonen aniztasuna eta haien arteko desberdintasuna, haietariko bakoitzaren berezitasuna, ez dela erraz ezabatu daitekeen zerbait. Horregatik, film hau kolektibitate batez eta amankomuneko denbora batez mintzo da, ikuspegi subjektibo batetik.

→


Film honi heltzeko orduan, bi erronka handi izan ditut: batetik, kartzelan izan nuen bizipena kontatzea argazki- eta gutun-bilduma txiki batetik abiatuta. Zinemagile gisa, kartzela hain mundu ikusezina izanik, obsesio bilakatu zait mundu hori kontatzeko hain baliabide gutxi izatea: presoek ez dute ez kamerarik, ez telefono mugikorrik, ezta Interneteko konexiorik ere. Nola kontatu aldi hura ia irudirik gabe? Horretarako, nire hurbileko jendeak kanpotik bidaltzen zizkidan argazkiak baliatu ditut, nik barnean lortu ahal izan nituen irudi gutxi batzuekin batera. Argazki horiek guztiek bi munduez dihardute, eta arreta berezia merezi dute: xehetasun bisualez beteta daude, denak ere guztiz esanguratsuak kanpoko eta barneko munduen artean dagoen tentsiozko harremana bistaratzeko.

918 GAU

Film honen beste erronka handia bi denboraren bat-egitea izan da. Iragana, kartzelako bizipenarekin lotua, eta oraina, kartzelaldiaren ondorengo epeari dagokiona. Hori islatzeko, bi irudi mota erabili ditut: batetik, iraganekoak, hau da, argazkiak eta gutun filmatu batzuk, denak ere oso esanguratsuak nire bizipenaren bilakaeran. Bestetik, gaur egun filmatu ditudan irudietara jo dut. Artxiboaren eta gaur egungo irudien arteko disoziazio hori iraganeko oroitzapenak oraingo gogoetekin harilkatzeko modu bat izan da, eta, emaitza gisa, bi denbora horiek bat eginda ageri dira filmean.

Chris Marker-ek esaten zuen film bat lehen pertsonan kontatzea gizatasun-zeinu bat izan daitekeela, jendeak kontrakoa uste badu ere: eskaintzeko daukagun guztia geure burua da. Eta horixe lortzen ahalegindu naiz film honetan.

P.9



918 GAU



P.10

Zergatik erabaki duzu istorio hau kontatzea, zure historia, hainbeste urteren ondoren?

Gaur egun oraindik ere jende askok galdetzen dit ea film hau ariketa terapeutiko bat izan den. Baina niretzat beste zentzu bat dauka. Galdera bati erantzuten saiatu naiz, zertarako balio duen zinemak: estereotipoetatik askatzeko? Ala, alderantziz, geure burua estereotipoetan behin eta berriz kokatzeko? Halako galderei erantzun bat eman nahia izan da filma egiteko erabili dudan iparrorratza.

Kontakizun zatikatu bat iradokitzen duten eszenen bitartez egiten du filmak aurrera. Zergatik eraiki duzu filma modu horretan?

Narrazio zatikatuak kolektibitatearen zentzuaren galera eta bizi berri bati ekiteko ahalegina dakartza gogora. Nire ustez, sentipen noraezeko hori organiko bilakatzen da filmak aurrera egin ahala. Lehen pertsonak indar handia du une batzuetan, baina neure historia gorpuzten laguntzen duten alter egoetan urtzen da. Pertsonaiak soslaiz agertzen dira beti, eta hori ez da kasualitatea. Ez da aurrez aurre begiratzen duen begirada bat, baizik eta begirada ezegonkor bat, saiheskakoa, eta horrek tolestura ugariko narrazio ibiltari bat sorrarazten du.

Zure esperientzia politikoa kontatzeko orduan, deserosotasun ageriko bat nabari da. Politikoa adierazteko modu berriak arakatzeko ahalegin bat da?

Nirea noraezeko bizi-prozesu bat izan da, arrarotasunak eta neure burua politikoki adierazteko leku baten gabeziak eragindakoa. Hori dela eta, filmak ez du aurrera egiten lerro zuzen batean, baizik eta eszena batetik bestera sigi-saga kulunkatuz. Garrantzitsua iruditzen zitzaidan aktibismo politikoei buruzko istorioen gainean eratzen diren kontakizun erromantizatuak zalantzan jartzea. Kontatu nahi izan dudana istorioak, kontakizun heroiko bat hauspotzeaz harago, subjektu politizatuak irudikatzeo logiketarik ihes egin nahi du. Ildo horretan, zalantza eta kalteberatasuna ere leku politiko bat ba ote diren arakatu nahi du 918 GAU filmak.

918 GAU

P.11

918 GAU



FILMOGRAFIA NABARMENENA:

PASSATGERES (23´)

Girona (Espainia), 2012. Azpittitulurik gabe. Dokumentala. Arantza Santestebanek, Dina Jimenezek, Daniella De Souzak eta Laura Gomezek zuzendua.

GORPUTZ_GRAFIAK (18´)

Euskal Herria (Espainia), 2015. Azpittitulurik gabe. Dokumentala. Arantza Santestebanek eta Maddi Barberrek zuzendua.

EURITAN (21´)

Donostia-San Sebastián (Espainia), 2017. V.O. Euskara azpittituluekin. Dokumentala. Arantza Santestebanek eta Irati Gorostidik zuzendua.

LILULAREN KONTRA (18´)

Euskal Herria (Espainia), 2021. Dokumentala, J.B. Euskara gaztelerazko azpittituluekin. Arantza Santestebanek zuzendua.

Historialari, zinemagile eta ikertzaile independentea. Sormen Dokumentala ikasi du eta film batzuk zuzendu ditu, *Passatgeres* ⁽²⁰¹²⁾ edo *Euritan* ⁽²⁰¹⁷⁾, besteak beste. Euskal gatazka politikoari buruzko hainbat ikerketa egin ditu feminismoaren eta irudikapen zinematografikoaren esparrutik.

Historian lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitatean. Ikus-entzunezko arteetako prestakuntza Bartzelonako Francesca Bonnemaison zentroan Dokumental Sortzaileko diplomaturarekin osatu du. Carmen Ávalosekin (Bartzelona) Zine Dokumentalaren Gidoian prestakuntza ere garatu du, eta prestakuntza espezifikoak jaso ditu Víctor Erice eta Patricio Guzmanekin (Madril).

2012an hasi zen lanean zinemagile gisa, eta hainbat pieza zuzendu zituen; horien artean, nabarmentzekoak dira 2017ko KIMUAK katalogoan hautatutako *Euritan* ⁽²⁰¹⁷⁾ sorkuntza-film laburra. Zinebi, Punto de Vista, Miradas Doc eta Malagako Zinemaldian ibili da.

2017an, Arte Garaikideko Huarte Zentroak hautatu zuen egoitza/ikerketa kuratoriala garatzeko. Horren barruan, 2018ko ekainean, “ZEHAR IRUDIAK, Gatazka irudien inguruko hausnarketak” nazioarteko mintegia komisariatatu zuen.

2018an Ikusmira Berriak programan hautatua izan zen, Donostiako Zinemaldiak, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak eta Elias Querejeta Zinema Eskolak antolatutako nazioarteko egoitza programa. Bertan *918 Gau* filma garatzen aritu zen.

2019az geroztik, doktoregoa prestatzen ari da Lisboako Arte Ederren Unibertsitatean Susana De Sousa Dias eta Ana Longonirekin, zinema-irudikapena, feminismoa eta euskal gatazka politikoa lotzen dituzten gaiak ikertzen.

Hiriarte Kultura Garaikidearen Zentroan (Iruña, Nafarroa) koordinatzaile gisa lan egin du, eta Arte Garaikidearen Uharteko Zentroan (Huarte, Nafarroa) Arte Praktiken eta Kultura Ikasketen Masterreko koordinatzaile gisa.

P.12

918 GAU


P.13



MADDI BARBER
Iruñea, 1988.

5 ARGAZKI ZUZENDARIAREN BIOFILMOGRAFIA

918 GAU



FILMOGRAFIA ARGAZKI-ZUZENDARI GISA:

918 GAU (65´)

Arantza Santesteban, 2021.

PARAISO (22´)

Maddi Barber y Marina Lameiro, 2021.

JO TA KE (50´)

Aitziber Olaskoaga, 2020.

GORRIA (22´)

Maddi Barber, 2020.

URPEAN LURRA (50´)

Maddi Barber, 2019.

592 METROZ GOITI (24´)

Maddi Barber, 2018.

P.14

Maddi Barber Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua eta Ikusizko Antropologian Masterra egin zuen Manchesterko Unibertsitatean. Bere lanak Visions du Réel, Donostia (Zabaltegi), Curtocircuito, Zinebi, Alcances, Ji.hlava, Porto Post Doc eta Las Palmas jaialdietan ikusi ahal izan dira, besteak beste. Bere film labur guztien eta Aitziber Olaskoaga (*Jo Ta Ke*) eta Arantza Santesteban (*918 Gau*) zinemagileen filmen argazki-zuzendaria izan da. Une honetan bere lehen film luzea, *Claros de bosque*, garatzen ari da NOKA (Tabakalera) zinemagileei laguntzeko programaren barruan.

918 GAU

P. 15



918 GAU



P.16

Muntatzailea. Kazetaritzan lizentziatua (UAB, 2006), Bideo Digitaleko graduondokoa (UPF, 2010) eta Sorkuntzako Dokumentaleko Masterra (UPF-IDEC 2016-2017). 2013an hasi zen muntaketa zinematografikoan lanean, Carlos Marqués Marceten taldeko laguntzaile gisa *10.000Km* (zuzendaritza berriko Goya), *Tierra Firme* eta *Els dies que vindran* eta Neus Ballus-en *Staff Onlyn*.

2017an, Aldemar Matiasen *Pa'lante* dokumental saila muntatu zuen Brasilgo telebistarentzat, Fernando Gómez Lunaren *El Rastro Firme* 2018an eta Gerard Omsen *Inefable* 2020an, besteak beste. 2021ean *Lo de Evoleren* bigarren denboraldiko muntaketa taldeko kide da.

2018az geroztik, dokumentalak muntatzeko ikastaroak ere ematen ditu Francesca Bonnemaision Emakumeen Kultura Zentroan eta Bande à part zinema eskolan.

918 GAU

P.17

MARIAN FERNANDEZ PASCAL
Iruñea, 1974.

7

EKOIZLEEN
BIOFILMOGRAFIA

918 GAU



Txintxua Filmsen sortzailea eta bere obra guztien ekoizle exekutiboa, Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean eta Film Certificate New York Universityn. 2000 eta 2005 artean SOGECINE enpresaren ekoizpen-taldeko kide izan zen. Txintxua Filmsen 2 telesail, 7 luzemetrai etalaburmetrai ugari ekoitzi ditu.

MARINA LAMEIRO
Iruñea, 1986.



P.18

Marina Lameiro zinemagilea eta ekoizlea da. 2017an, Ione Atenea eta Garazi Erbururekin batera Hiruki Filmak enprekin sortu zuen. Rey Juan Carlos Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua; IDEC-Pompeu Fabraren Sorkuntza Dokumentalean Masterra eta Ikus-entzunezko Muntaketan Graduondokoa unibertsitate berean; New Yorkeko UnionDocs dokumental-arte zentroko Collaborative Studion (CoLab) urtebetez bizi izan den artista.

Marinak hainbat dokumental ekoitzi, idatzi eta zuzentzen ditu, hala nola *Young & Beautiful* (2018) film luzea, besteak beste, 2018ko Punto de Vista Jaialdian Publikoaren Sari Berezia jaso zuena; *Dardara* (2021) film luzea; eta *Paraíso* (2021) film laburra, Maddi Barberrekin batera zuzendua.

918 GAU

P.19

918 GAU



P.20

Filma Txintxua Films eta Hiruki Filmak (Erburu Irigoyen Garazi eta Lameiro Garayoa Ione Atenea eta Marina) ekoiztetxeen koprodukzioa da. ICAAREN, EUSKO JAURLARITZAREN, NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN laguntzak jaso ditu. Tabakalera arte zentroaren Ikusmira Berriak programa ospetsuan eta SSIFFn parte hartu du, baita SSIFFren WIP (Work In progress Europe 2020) programan eta MAFIZ saria irabazi zuen Abycineko foroan ere. Filmak Eitbren partaidetza du.

918 GAU



P.21

Filmaren grabaketak hainbat zati izan ditu. Funtsezko zati bat zinemagilearen artxiboa filmatzeko eta irudikatzeko modua aurkitzea izan da. Film-ikerketa hori hainbat lekutan egin da, betiere zuzendariarekiko lotutako etxe-ingurunean.

Beste alde garrantzitsu bat zuzendariaren biografiako leku garrantzitsuak aztertzea izan da, hala nola atxilotu zuten lekua edo Berlin hiria, kartzelatik ateratzean aterpe izan zuena.

Filmerako espazioak birsortu dira, hala nola techno festa edo maitaleen logela, eta guztiz ezezagunak diren tokiak bisitatu dira, Berlingo Zoo edo Gamizko paisaia, Jambo zebra bizi zen lekua.

Filmatze prozesua hainbat hilabetez luzatu zen 2019 eta 2020 urteen artean, filma eraikitzeke beharrezko elementu guztiak lortu arte.

918 GAU

P. 22





918 GAU

TXINTXUA FILMS

Marian Fernandez ekoizleak eta Asier Altuna zuzendariak 2008an sortua, Txintxua Filmsek zazpi film luze, bi serie eta film labur ugari ekoitzi ditu:

TELESAILAK

2021 - 2022

INTIMIDAD

45 minutuko 8 kapitulu, Txintxua Filmsek Netflixentzat ekoitzia. Veronica Fernandezek eta Laura Sarmientok sortua.

2020

HONDAR AHOAK

50 minutuko 4 kapitulu, ETBrentzat ekoitzia. Marian Fernandez Pascal eta Koldo Almandozek sortua. Koldo Almandozek idatzi eta zuzendu du.

ETB1eko estreinaldia, 2020ko azaroa. Film baten estreinaldia, 2021eko martxoa.

LUZEMETRAIAK

2021

HONDALEA ABISMO MARINO

Asier Altunak idatzi eta zuzendua. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko Euskal Zinemaren Galan estreinatua.

2018

OREINA

Koldo Almandozek idatzi eta zuzendua. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko New Directors sailean estreinatua zen, eta euskal film onenaren saria jaso zuen. GOLEM banatzailea Espainian. Nazioarteko jaialdi askotan parte hartu du; Edinburgoko Nazioarteko Jaialdian, Cartagena de Indiaseko Nazioarteko Zinemaldian (FICCI)... Estreinaldi komertziala Frantzian.

2018

DANTZA

Telmo Esnalek idatzi eta zuzendua. Donostia Zinemaldiko Glocal in Progress saria. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko sail ofizialean estreinatu zen, lehiaketatik kanpo. Espainian banatzailea BTEAM PICTURES. Estreinaldi komertziala Frantzian.

2011

BERTSOLARI

Dokumentala, Asier Altunak idatzia eta zuzendua. 2011ko Donostiako Zinemaldiko lehiaketatik kanpo aurkeztu zen Sail Ofizialean. GOLEM banatzailea Espainian. Nazioarteko jaialdi askotan parte hartu du. Estreinaldi komertziala Frantzian.

918 GAU

2016

SIPO PHANTASMA

Koldo Almandozek idatzi eta zuzendua. Rotterdameko Jaialdian estreinatu zen, besteak beste Montevideoko, Buenos Airesko BAFICIKo, Dei Popoli Florentziako eta ZINEBIko jaialdietan egon zen eta Donostia Zinemaldiko Zabaltegi-Tabakalera sailean lehiatu zen.

→ FILM LUZEAK EKOIZPENEAN

A LOS LIBROS**Y A LAS MUJERES CANTO**

Maria Elorzak idatzi eta zuzendutako sorkuntza dokumentala. Grabaketa-fasean. Aurreikusitako estreinaldia 2022.

2015

AMAMA

Asier Altunak idatzi eta zuzendua. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko sail ofizialean estreinatu zen, eta euskal film onenaren saria jaso zuen. GOLEM banatzailea Espainian, 140 areto baino gehiagotan estreinatu zen. Emakumezko aktore berri onenaren Goya sarirako izendapena lortu zuen Iraia Eliasentzat. Nazioarteko 70 jaialdietan baino gehiagotan parte hartu du eta 25 sari baino gehiago jaso ditu. Estreinaldi komertziala Frantzian.

P.24

Txintxua Filmsek birritan jaso du EZAE saria (Euskadiko zinema-aretoen elkarte), euskal zinema-industriari egindako ekarpenagatik, leihatilan izandako arrakastagatik, bere ibilbideagatik eta kalitate eta originaltasun handiagatik. AMAMArekin 2016an eta DANTZArekin 2019an.



918 GAU

HIRUKI FILMAK

(Erburu Irigoyen Garazi y Lameiro Garayoa Ione Atenea y Marina)

Hiruki Filmak 2017an sortu zen, taldekideen eta beste emakume batzuen sormen-lana elkarlanean egin ahal izateko gune bat sortzeko asmoz. Garazi Erburuk, Marina Lameirot eta Ione Ateneak bat egin dute Lameiro zuzendariaren *Young & Beautiful* lehen luzemetraian bat egin ondoren, industria -eta gizarte- bati aurre egiteko. Industria horretan, emakumeen lana gutxiago baloratzen eta ikusten da, sektoreko beste profesional batzuekin indarrak batuz, kalitate artistiko eta garrantzi sozial handiko proiektuak aurrera ateratzeko.

Ikus-entzunezko sektoreko kide bakoitzak ibilbide desberdina duenez, proiektuen garapenean eta produkzioan osatzen dira, proiektuaren gidaritzatik eta kontzeptualizaziotik zuzendaritzara, produkziora eta muntaia-rra. Proiektu bakoitzean hartzen dituzten rolak txandakako lanaren bidez aldatzen dira, proiektu bakoitzerako lan espezifiko guztiak sortuz, eta horietan hirurek parte hartzen dute eta elkarrekin hazten dira, gero eta talde indartsuagoa sortuz.

2019an, Ione Atenearen *Urtarrila* Gijoneko Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zen, eta Europako opera prima onenaren saria eskuratu zuen. Ordutik, dokumentalak *MiradasDoc*, *Alcances* edo *Novos Cinemas* bezalako jaialdiak egin ditu, 2020ko *Rizoma* Zinemaren Sarirako finalista izan da eta dokumental onenaren izendapena jaso du *Feroz 2020* sarietarako.

Datozen hilabeteetan, *918 Gau* filmaz gain, bi film berri estreinatuko dira: Ione Atenearen *Los Caballos Mueren al Amanecer* eta Marina Lameirot eta Maddi Barberrek zuzendutako *Paraíso*.

P.25

918 GAU

P.26



918 GAU

EKOIZTETXEAK →

TXINTXUA FILMS

Euskadi Etorbidea N53, 4ºA
20110 Trintxerpe - Pasaia, Gipuzkoa
www.txintxua.com
txintxua@txintxua.com
+34 943 393 380

HIRUKI FILMAK

Travesía Monasterio de Belate 2, 7A
31011 Pamplona, Navarra
www.hirukifilmak.com
info@hirukifilmak.com
+34 622 671 160

P.27

BANAKETA ETA SALMENTAK →

BEGIN AGAIN FILMS


Plaza Parque del Generalife N2, 6ºC
04006 Almería
<https://beginagainfilms.es/>
hola@beginagainfilms.es
+34 915 221 343

SONIA ABBAS

Banaketa eta salmentak
+34 663 37 73 42
sonia@beginagainfilms.es

SANDRA CARNOTA

Prentsa burua
+34 662 12 40 22
sandra@artegb.com



**BASQUE.
AUDIOVISUAL.**



Con la financiación del Gobierno de España



BEGIN AGAIN